

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

244/2021 Foru Agindua, irailaren 9koa. Zehaztea Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 6ko 30/2021 Foru Dekretuan zehazten diren kirol jarduerak bete behar dituzten baldintzak, 2021eko ekitaldirako lehentasunezko mezenasgo jarduera jotzeko

16/2004 Foru Arauak (uztailaren 12koa, irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzkoa) ezartzen du sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jarduera edo programak finantzatzen parte hartzeko araudi esparrua.

Hala, bada, 16/2004 Foru Arau horren 29. artikulua lehenengo apartatuak ezarritakoa betez, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 6ko 30/2021 Foru Dekretuak (ALHAOren 78. zenbakia, 2021eko uztailaren 14koa) xedatzen ditu zeintzuk izango ziren lehentasunezko mezenasgo jarduerak 2021erako. Horien artean dira 3. artikuluan zehazten dituen kirol jarduerak, betiere, arau horrek ezarritako betebeharrak ez ezik, "Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak ezarritako baldintzak" ere betetzen badituzte.

Beraz, eta 30/2021 Foru Dekretuaren 3. artikulua berak emandako gaikuntzaren arabera, ezinbesteko da artikulua horretan aipatutako kirol jarduerak bete behar dituzten baldintzak ezartzea, 2021eko ekitaldirako lehentasunezko mezenasgo jarduera jotzeko.

Aginduzko txostenak ikusi dira, horregatik eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea

Erregulazio honen helburua da xedatzea zein baldintza bete behar duten Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 6ko 30/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan zehazten diren kirol jarduerak, 2021eko ekitaldian lehentasunezko mezenasgo jardueratzat har daitezten.

2. artikulua. Jarduera mota bakoitzerako baldintza espezifikoak

1. Lehentasunezkoztat jo ahal izango dira Arabako Lurralde Historikoko kirol klubetako emakumezkoen talde edo atalen lehiaketa jarduerak, baldin eta lurralde, autonomia, estatu edo nazioarte eremuko lehiaketa ofizialetan parte hartzen badute.

2. Aurreko atalean adierazitakoez gain, lehentasunezkoztat joko dira honako baldintza haue-takoren bat biltzen duten kirol jarduerak, kirol lehiaketak barne:

a) Emakumezkoena izatea. Kirol jarduerak emakumezkoenak direla ulertuko da, emakumeek baino ezin dutenean parte hartu edo gehienbat emakumeek parte hartzen dutenean.

b) Sustatzea emakumezkoen parte hartzea, betekizun hori betetzat emango da, baldin eta beren deialdian eta publizitatean, emakumezkoek parte har dezaten, dei berezia eta adieraz-garria egiten bada.

Horrelakoetan, gainera, eskatuko da dena delako jarduerak genero estereotipoak apurtzera bultzatzea edo emakumeak ikustaraztea eta horiek gizartean aintzatetsiak izatea sustatzea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da jarduera horiek gizonezkoen parte hartzeakin lotuta egon izan diren eremuetan emakumeen parte hartzea bultzatzen badute.

Dena dela, aurreko atalak aipatzen dituen jarduerak Arabako Lurralde Historikoan egingo dira eta lurraldean eragin esanguratsua izango dute.

3. artikulua. Baldintza orokorrak

Pertsona fisiko edo juridikoek 2021eko ekitaldian euren jarduerak lehentasunezkoztat jotzeko interesa badute, 2021eko abenduaren 1a baino lehen egin beharko dute eskaera Kultura eta Kirol Sailean.

Eskaerarekin batera lehentasunezkoztat jotzea nahi den jardueraren proiektua aurkeztuko da. Proiektuan dena delako kirol klub edo jardueraren diru sarreren eta gastuen aurreikuspena jasoko da. Lehentasunezko jarduera kirol klub bateko emakumezkoen atalerako eskatzen denean, diru sarreren eta gastuen aurreikuspenak bereizirik adieraziko ditu klubari dagokion aurreikuspenak eta kasuan kasuko emakumezkoen atalarenak direnak.

4. artikulua. Ebazpena

Eskatutako baldintzak betetzen badira, Kultura eta Kirol diputatuak egingo du jarduera lehentasunezkoztat jotzeko adierazpena.

Ezer ebatzi aurretik, espedientea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari bidaliko zaio.

Azken xedapena.

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean eta 2021 urterako eragingo ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 9a

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ